

– Mendekoste –

Bizitza eskuetan dugula bizi

1. Hasiera (Poema)

Oraintxe eta hementxe, Jauna,
hementxe benetan pobre...
Eskuak hutsik, burua hutsik...
Ez dut ahoan hitzik...
Ez dut, Jauna, hatsik.

Nire barruan ez da
ikatz errea besterik gelditzen,
izandako suteen hondarrak,
kiskalita gelditu zaizkidan
amets handien zakarrak.

Izandako suaren
haus, gauza hutsa, hautsa...
eta hautsaren azpian
hilzoriko su-izpia,
brasa txikia,
justu bizia... Hutsa!

Hauxe da daukadana, Jauna,
hautsa franko eta su txikia,
nire bizitzaren
eta bizi-ezinaren historia,
nire egia,
maitasun handi baten
aspaldiko memoria,
erabat eroria.

Eta hemen nator,
nire su txikia eskuetan hartuta...
Hau da nirea, hau naiz,
ez daukat besterik...

Eta besterik ez eta
hauxe dakart eskuetan,
hezur lehorren zarata,
ezintasun handiaren zalaparta,
nire amets galduen zelaietan.

Eta hemen nago,
bidertzeko itsu Bartimeo,
eskuak luzaturik eskale,
zu ondotik noiz igaroko,
noiz ote nauzun begiz joko.

Hau da, Jauna, daukadana,
hau da naizena,
hauxe da dena.
Hemendik aurrera
zuk esan eta egin nahi duzuna.

(Isilunea utzi eta «Ez nekien nor zinen» kanta daiteke)

2. Kantua

Jauna, ez nekien Zu nor zinen,
ez nor zinen, ez bazinenik;
ni baina zure bila nenbilen,
ez nuen inon atsedetik.

Bidertzeko itsu hura nintzen,
zorion-apurren eskale;
nire ondotik igaro zinen,
ogi berroaren emale.

Nire gauak oihu egin zizun,
dena ilun, dena oztopo;
Zuk argiz besarkatu ninduzun,
Zurekin egin nuen topo.

Orain badakit nor zaren, Jauna,
nor zaren eta neu nor naizen;
nire bihotzak behar zuena
ai!, zure maitasuna baitzen.

Gaur nago lehen bezain indargabe,
hala naiz, ahula naiz, haurra naiz;
Jauna, dena dezaket, halare,
zure besoen babes alaiz.

Esker on, gorespen, amodio,
nire bihotzaren Jaun ezti;
nire ezinari poza dario,
Zu, Jauna, Zu nire abesti!

(Isilunea...)

3. Jainkoaren Hitza

San Markosen Ebanjeliotik (*Mk 10, 46-52*).

Jerikora iritsi ziren. Eta Jesus bere ikasleekin eta jendetza handiarekin hiritik irteterakoan, Bartimeo itsua, Timeoren semea, eskean zegoen bide-ertzean eserita. Jesus Nazaretarra zela jakitean, oihuka hasi zen:

—Daviden Semea, Jesus, erruki zakizkit!

Askok gogor egiten zioten, isilarazteko; baina hark areago oihu:

—Daviden Semea, erruki zakizkit!

Jesusek gelditu eta hari dei egiteko agindu zuen. Dei egin zioten itsuari, esanez: —Izan bihotz! Jaiki, deika ari zaik.

Bere soingainekoa jaurtiz, salto batean zutitu eta Jesusengana joan zen.

Jesusek galdegin zion: —Zer nahi duzu niregandik?

Itsua erantzun: —Berriro ikustea, Jauna.

Jesusek esan zion: —Zoaz, zeure sinesmenak sendatu zaitu.

Une berean ikusmena etorri zitzaion berriro, eta Jesusen ondoren zihoan bidean.

4. Kantua (*errepikatu bost-sei bat aldiz*)

Veni, Creator Spiritus

Abestia: Taizékoa
Euskal hitzak: Iñaki Beristaim



Ve - ni, Cre - a - tor Spi - ri - tus. Ve - ni lu - men cor - di - um,
Es - pi - ri - tu sor - tzai - le - a, za - toz gu - re ba - rru - ra

5
ve - ni, — lu - men cor - di - um!
e - ta — be - rri gai - tza - zu!

5. Barne-lana galderaz edo aitortzaz

(*Isil-une luzeak eta musika suabea tartekatuz*)

- Maite al dut neure burua eta historia?:
estimatus sentitzen naiz ala frustrazioak estaltzen dit barrua?
zerk eragiten dit barruko tristura eta pozik eza?
zergatik ez dut maite neure historia?

- Bartimeo itsua bezala sentitzen al zara, bidertzean utzia?
Eskale al zabilta: kontsumoan, ospean, atseginetan...?
Eta zer jasotzen duzu horietatik?
Hutsik, utzia, norabiderik gabe, bizi-zentzurik gabe...
- Zure ondoan Jesus igarotzen da beti bere Espirituaren usainez.
Egiozu garrasi: «Erruki zakizkit, ene Jauna!».
Ezerk ez dezala estali zure deia eta garrasia.
Askatzailea da ondotik doakizuna.
- Eta berak bere maitasunaren hitza esango dizu...
Bere Espirituaz ukituko zaitu barrutik...
Bere bakardadera eramango zaitu, bihotzera hitz egiteko...
Eta izango zara, piztuko zara, poztuko zara...
- Berriro ere har dezakezu zeure historia eskuetan...
Emaiozu Jaunari zure bizitzaren giltza, utzi hari azken hitza...
Eta zure historia maitatua sentituko duzu, Jaunak maite du...
Bizi zintezke, bizi dezakezu bizi duzuna...
- Maitatua zara. Mendekosteko Espirituak jo zaitu...
Jaiki zaitez bidertzetik! Zatoz bizi berriaren uretara!
Murgildu zaitez maitasunaren uretan. Bizi zaitez!

6. Sinbolo edo irudiren bat

(Musikak jarraitzen duen bitartean, nahi dutenek uretara hurbildu eta, eskua bustiz, «Aitaren» egin dezakete... Mugimendu eta zarata asko gabe, ahal den neurrian)

7. BARNE KANTA (V). Imanol-Orixe

Maitaigun elkar, maite,
goazen oihan barnera,
zure edertasuna mendian ikustera,
muinoari darion uretik edatera,
uretik edatera.

Handik gorago dauden
hartzulo gordetara,
haietan bi biñook isil sartuko gara
ta puni-sagardoa edakegu gogara.

Han erakutsiko zuk
nik gogoan dudana,
eman ere didazu,
nere bizi zerana,
aurreko egun hartan
han eman zenidana,
han eman zenidana.

Haizearen arnasa
txindorraren txioa,
izar dagon gauean
inguru on-giroa,
min gabe erretzen dun
sugarraren lanboa,
sugarraren lanboa.

Ez zegon inor beira
txerren-leize zuloan,
hesi barrua pake
jabalean zegoan
eta zalditeria
ur-begitik zijoan.

Han erakutsiko zuk
nik gogoan dudana,
eman ere didazu,
nere bizi zerana,
aurreko egun hartan
han eman zenidana,
han eman zenidana.

Non zaude kuku, Maite,
hemen nauzu mingulin,
oreina antzo, jota
nadukazu maitemin
ta zuk neri aldegin...

8. Nire eskuetatik zureetara

Jauna, su txikia, hil zorikoa,
eskuetan hartuta etorri naiz,
eta zurekin egon naiz bare
otoitzaren gozoa gozatu nahiz.

Zure intimitatearen basoan,
maitasunaren besoan,
zure isiltasunaren gozoan,

indartu dut sua,
lehen hila, orain kartsua.

Eta... banoa, Jauna, banoa
neure kaleetara,
haizeak jotzen duen
zelaietara.

Haizeak ez dezala nire sua itzali,
zaborrak ez dezala zure sua estali,
zure maitasunasunaren espirituak
piztu diezadala goizero su berria,
lanaren eguna argitzeko,
sufrimenduaren gaua pozteko,
gau ta egun zurekin egoteko.

Jauna, orain arte nirea zena
orain zurea da,
nire eskuetan ekarri dudana
zure eskuetan uzten dizut...
Egin nahi duzuna nirearekin,
poztu nazazu beti zeurearekin,
beti bizi nahi dut zurekin.

Orain arte neure historia neraman eskuetan,
gaurtik zure maitasuna daramat begietan...
Orain arte kezka nuen neure historia,
orain ardura dut zure ongiaren memoria.

Goza nazazu, goza zaitzadan.
Ni naizen eta dagidan guztian
izan zaitez zu egile,
maitatua senti nadin eta maita dezadan.